

Pintatu (Etxepare 1545): 'edan'?

Charles Videgain

► **To cite this version:**

Charles Videgain. Pintatu (Etxepare 1545): 'edan'?. ASJU Beñat Oihartzabali gorazarre - Festschrift for Bernard Oyharçabal, 2009, pp.971-978. <artxibo-00699181>

HAL Id: artxibo-00699181

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00699181>

Submitted on 19 May 2012

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

PINTATU (ETXEPARE 1545): ‘EDAN’?

Xarles Videgain

(UPPA, IKER-CNRS UMR5478)

Abstract

The first known book published in Basque language (Etxepare 1545) may yet harbour a few surprises. As a matter of fact the verb pintatu in the following excerpt: Nyri unja ez padaguit vehardicit pintatu has always been consistently translated as ‘to drink’ or ‘to drink excessively’, ‘to drink like a fish’, but this direct translation can be challenged by a more plausible contextualized proposal such as ‘to pretend’, ‘to lure’ or ‘to hoax’, which would take into account the various Castilian and French meanings of ‘pintar’ and ‘peindre’ (to paint), originated from the Latin word pingere.

Frantses estadian, lizeoko erakasle izateko badago CAPES izeneko azterketa bat, zeinen prestakuntzan B. Oyharçabalek parte hartzen baitzuen Unibertsitateko beste lagunekin. Ikasleek B. Etxepare ikertu izan behar zuten frankotan, azterketa horren programan sarturik baitzen Garaziko idazlea. Nik Baionan goizeko zortzietan kurtsoa ematen nuen Etxepareren hizkuntz-arazo zenbaiten inguruan, noiz eta ere bederatzi orenetan ttanko horra non Beñat agertzen baitzen bere jakitatearen berri emateko hizkuntzalaritzari buruz.

Erran gabe doa, alta, Bernard Etxepare nik baino xehekiago ezagutzen duela beste Bernard honek, egin dituen artikulu mamitsuak lekuko (Oyharçabal 2008, Arcocha & Oyharçabal 2008, 2009). Ausartzia ez dut ttipi izan behar, Etxepareren obran aspaldidanik kilikatzen nauen pundu ttipi baten hemen aipatzeko, hau da, Etxeparek darabilan *pintatu* hitza.

Pintatu aditza orai arte Etxepare argitaratu duten guziek dudamudarik gabe ‘boire / beber’ aditza emanez itzuli dute. Beraz ‘edan’ erran nahi omen du. Nahiz itzultzaile guziak bat etortzea, aspalditik iduri zait gatu honek badukeela beste buztanik. Itzulpen hori maingu dela uste dut eta beste manera batez itzuli behar dela proposatzen dut: ‘feindre / fingir’ edo eta Etxepareren garaiko erdarak kontuan harturik, ‘peindre / pintar’ adiera hobetsi nahi dut.

Egia errateko, *pintatu* hitza dakarren olerki berean, badago beste pasarterik ene ustez ilun denik hala nola 31. lerroan *sarويا da lohitu* elementu fraseologikoa: ez naiz hartaz ariko.

Goazen ikus datuak zein diren. *Pintatu* aditza agertzen da “Amoros gelosia” olerkian. Horra Etxeparek (1545) “Amoros gelosia” olerkian dioena:

Secretuqui vehardicit harequila minçatu
Ordu hartan iagoyticoz'exay ezpa vaquetu
Nyri vnra ez padaguit vehardicit pintatu
Ene buruya ciaydaçu harendaco abaftu.

Euskaltzaindiak (1999) atera duen bertsiio gaurkotuan horrela etortzen baita testu bera, VII olerkian (11-14 lerroetan):

Sekretuki behar dizit harekila mintzatu,
ordu hartan jagoitikozez etsai ezpa baketu;
niri untsa ezpadagit, behar dizit pintatu;
ene buruia ziaidazu harendako abastu.

Iduri luke Etxepareren bertso hauen itzultzeko dudarik ez duela nehork ere ukan. Gazteleraz, horrela dio Euskaltzaindiaren argitarapenak:

Debo hablar con ella a solas y en secreto
Y romper de una vez para siempre o amarnos.
Si no me recibe bien, tendré que darle a beber.
Mi persona es sobrada persona para ella.

Frantsesez horrela dator itzulpena:

Il faut que je m'entretienne en secret avec elle.
Alors, pour toujours, ennemis ou réconciliés!
Si elle ne se montre pas bonne pour moi, il faut que je boive;
Je me suffis à moi-même pour cela.

Interesatzen zaitan pasartea bera *behar dizit pintatu*, ingelesez emana da: *I must take to drink*, alemanieraz: *ich miß wohl betrinken müssen* eta italieraz: *dovrò darmi al bicchiere*. Beraz *pintatu* hitza bost mintzaiteran ber moldean adierazia da.

Ez dut hemen luzaz aipatuko pasarte honen laugarren lerroari buruz agertzen den desberdintasuna. Alabainan, frantsesez eta gazteleraz ez da gauza bera adierazten. Gaztelerazko itzulpenak *ella* dakar (eta gizonak maite duen emazteaz ari dela ematen du) eta frantsesezko itzulpenak aldiz *cela* dakar eta edateaz ari da, edateko ekimenaz beraz, ene ustez, ez emazteaz, *cela* gauza bati baizik ez baitakioke aplikatu. Ez dut pundu hortaz aburu finkorik, hain zuzen *abastu* hitza ongi ulertzen dudanetz ez naitzelako fida. Bainan bego: bi itzulpenen arteko desberdintasunak eta ene zorrotzasunak *pintatu* hitza bera ez dute zuzen hunkitzen.

Lafonek berak (1952 [1999: 777]) ez du dudarik:

“Il faut que je boive”. Lhande traduit *pintatu* (p. 870) par «pinter». Mais le mot *pintatu* n'est pas étranger au style soutenu; Argaignarats l'emploie (*Devoten breviariora*, 1665, p. 44 de l'édition Vinson) en parlant du breuvage que les Juifs présentèrent au Christ sur la Croix.

Noan beraz *pintatu* aditzari berari buruz. Ez banaiz oker, *Orotariko Euskal Hiztegiak* bi sarrera desberdin eskaintzen ditu *pintatu* hitzaz. Lehenbizikoan ez du aipatzen Etxepareren gertaketa eta 'boire / beber' adieraren berririk ez du ematen. Bigarren sarrera batean sartu du. Aldiz lehenbiziko sarreran, 'Pintar, dibujar, teñir', edo 'dibu-

jarse', edo 'pintar, expresar' ageri dira, eta ondotik 'pintxatu' adiera; azkenik 'dar resultado, medrar' ematen du. Lehenbiziko "pintatu" hori garai guzietan eta euskalki guzietan erabili dela dio *OEHk*. Bigarreneko sarreran Salaberryren lana aipatzen du *OEHk* "pinter, boire dans les cabarets, sans mesure" adierarekin eta Etxepareren gure gertaketa bera ematen du: "Niri untsa ezpadagit, behar dizit pintatu". Ikusten den bezala, *pintatu* hortan bi lexia desberdin badaudela kontsideratu dute *OEHko* arduradunek. Toki handiena 'dibujar/dessiner' adierak hartzen du. Eta 'edan' adieran, Etxepareren adibidea baizik ez dago. Hain zuzen, dudan ezartzen dudan adiera.

Pintatu aditza *pinta* izenetik dator, naski, eta horra zer dioen *OEHk* *pinta* hitzaz. Lau sarrera ematen du. Lehen adierak dauka garrantzia: "Pinta (medida de vino)" dio *OEHk* eta Salaberryrengatik ateratzen duen glosa ematen du: "pinte, mesure de capacité, notamment de vin, équivalent à un litre". Adiera honekilako adibide guziak, Orixerena salbu, Iparraldekoak dira. Egia da gaur ere, *pinta* hitza Iparraldean komunzki erabiltzen dela 'litro bati doakion neurria' adierazteko. Bigarren sarreran *OEHk* gaztelarazko 'esqueje' ematen du lehenbiziko adiera gisa (agian fr. 'bouture') bainan galderazko ikurra dakar. Bigarren adiera 'pinta, mota' glosatzen du (hain zuzen *pintatu* aditzari buruz emandako lehen sarrerari doakiona) eta hirugarren adieran 'pinta, imagen' agertzen da. Hirugarren sarrerak naipeak edo kartak ditu gogoan 'pintas, juego de naipes' baitio *OEHk*. Laugarren eta azken adierak *pinta* hitza lotzen du *pinda* hitzarekin, hau *pindar* hitzaren aldaki gisa agertzen delarik.

Beraz, bere logika badu *OEHk*. Bi *pintatu* ikusi nahi izan ditu, bata nagusiki 'dibujar / dessiner' adierazten duena, eta bestea 'beber / boire'. Molde berean lau *pinta* berezten ditu, bata nagusiki neurria dena, 'medida de liquido / mesure de liquide', eta bestea 'imagen / image'. Beste bi sarrerek ez dute eraginik gure lanerako.

Nahiz Salaberryk dioen *pintatu* aditza erabiltzen dela 'edan', 'beber / boire' adierazteko, uste dut askoz gehiago erabiltzen dela eta erabilia izan dela *pintukatu*, *pintokatu* aditza. Baina 'edan' hutsik edo 'boire / beber' baino zehazkiago, 'larregi edan', 'trop boire / beber demasiado' adierazten du *pintukatu* hitzak. Eta hala dio, zuzen ene ustez, *OEHk* ondoko azalpenekin: "Pinter, boire sans mesure", "Chopiner", "Beber, vulg. echar cuartillos", "Beber algo más que de costumbre". Bestalde, erregistro apalekoa da hitz hori. Mozkorraldiaren alor semantiko zabalean, lagunaren artean, gizonen artean bereziki erabiltzen den hitza da. Izatekotz, aldi berean, badauka hitz horrek zerbait eufemistiko: ostatuan dauden jendeak *pintukatzen* ari direlarik erraiten delarik, mozkor kronikoaren figura eztiturik agertzen da. Etxeparek baliatzen duen lexikoa, oro har, ez da mail apalekoa. Nabasi denik ezin da erran.

Beste ohar bat egin behar dut: Salaberryren lekukotasunaren eta Etxepareren lekukotasunaren artean —eta Lafonek goragoko aipamenean ematen duen Argaignaratsen gertaketa (1665) ez balinbada kontuan hartzen—, jauzi kronologiko handia da, hiru ehun urtetakoa, nonbait han *pintatu* hitzaren gertaketen artean. Erran nahi du Etxepare aitzindari zitekeela *pintatu* lexia erabiltzeko 'beber / boire' adierarekin, *pintatu* ez baita beste behin ere agertu ondoko hiru mendeetan. Nahiz frogatuko zaitan jauzi bera gertatu dela beste hitz andana batekin, (erran nahi baita, Etxeparek hitz bat erabiltzea eta hitz hori ez dokumentatu izatea hiru mendez) tarte luze hori datu susmagarritzat daukat. Argaignaratsen gertaketa bakarra (1665, *apud* Lafon 1952 [1999: 777]) ez da aski ene susmoaren suntsiarazteko.

Euskal lexikografiak dioena ikusirik, eta parte batean behintzat ez sinetsirik, so egin diot ea ‘beber / boire’ adiera egoki jiten zaion Etxepareren testuari. Tama-
lez, P. Altunak egindako edizio kritikoa gutietsi gabe, Etxeparek baliatzen duen
lexikoaren ikerketa sakonik ez daukagu. Halere, iduritzen zait gorputza eta gorpu-
tzaren funtzio fisiologikoak ez dituela asko aipatzen gure idazleak (famatu den pa-
sarte bat kendurik, zeinetan *dardoaz* mintzo baita). Zurkaiztatzen ez dudan inpre-
sio hori ez da aski ‘beber / boire’ adiera suntsitzeko. Bainan *pintatu* hitza zein
olerkitan datorren so egiten balinbadugu, beste norabide bat hauta genezakeela
uste dut.

Literaturaren alorrean doi bat sarturik, ikusten da bi pertsonaia badaudela “Amo-
ros jelosia” olerkian. Bi gauza elkarren aurka erakusten digu egileak. Alde batetik
leialtasuna, leialtasun osoz ari omen baita gizona (*ni* delakoa) eta bestetik desleialta-
suna, aldatuz eta tronpatuz ari baita emaztea.

Gizona tinko egoiten da fidel, ondoko pasarteek erakusten bezala: *enuien nik fal-
tarik* (5), edo *faltatu ez tut bizian* (17). Bere leialtasuna gaizki ordaindua dela eta
kexatzen da, ondoko hitzak metatuz: *penaz* (1), *dolore* (2), *minez* (6), *nigarrez* (23),
gaiaz lorik ezin daidit (25).

Gizona bere buruaz mintzo da, eta bere buruaren alde. Emazteaz ere gizona da
mintzo. Eta hitz gutiesgarriak metatzen ditu haren kontra: *muthatu* (7) eta *muthatu-
rik* (16) erran nahi baitu okerrera jo duela emazteak; *anderehantu* da (10), *lehen mi-
ragarri jentilik* (3) baizik ez zen emaztea. Fideltasunik eza finki adierazten du *bethe
nuien adarrez* pasarteak (26). Eta *eztaduka unsa leialdaterik* esaldiak azkenik agerian
uzten du emaztearen faltsua.

Areka hartatik eskapatzekotan joangiak bilatzen ditu gizonak: edo beste emazterik
biltzea edo bederen emazte harenganik berez egotea aipatzen du, nahiz horren obra-
tzeko ez duen kalipurik. Egin gei badu halere eta horren gogoa errepikatzen du: *zu-
hur banintz*, *baninzade ni ere hura gaberik* (21). *Elikaturen* (29) hitzaz adierazten du
hobe lukeela emazte hura bere gogotik bazter baleza, *elikatu* ulertu behar baita, naski,
‘abstenerse / abstenir (s)’ gisa; *ukhenen dut orai ere berririk* (32) esaldiak geroan ideki
lezakeen beste bidea aipatzen du.

Oposaketa horiek labur emanik, hots, gizonaren leiala eta emaztearen makurra,
proposatzen dut kontestu horretan sartzea *behar dizit pintatu* esaldia eta kontestu
horren arabera argitzea. Amoros jelos batek edan behar ote du maite duen emazteaz
mendekatzeko edo harenganik bereizteko? Edo hobeki erranez, edarian eta edanez ito
behar ote du amoros jelosak bere ezbeharra? Deus ez da testuan hartara garamatza-
nik. Garai hartako literaturan edale bihurtzeko beharra aipatzen denik ez dut uste,
baina ez dut puntu hori gehiago barnatu.

Beraz, proposatzen dut *behar dizit pintatu* beste molde batez kontuan hartzea,
hots, olerkiko amoros jelosak egiten dituen beste aterabide edo beste mehatxu balitz
bezala. Bainan hortarako semantikaren aldetik susmatzen dudana lexikografiak ez ote
duen debekatuko ikusi behar dugu.

Pintatu erdaratik datorrela ezin uka. *Pinta* ‘neurria’ ere bai. Erdarazko ‘pintar /
peindre, pinter’ eta ‘pinta / pinte’ hitzez hiztegiek diotena ikus dezagun. *Trésor de
la langue française* hiztegiak (TLF) *pinte* ‘neurri’ eta ‘untzi’ bat dela azaldu ondoan,
horrela dio etimologiaren aldetik:

D'après FEW, t. 8, p. 252 a, du b. lat *pincta*, part. passé fém. de *pingere* (*peindre*), qualifiant à l'origine un subst. fém. désignant une mesure de capacité étalonnée (*canna, hemina, quarta...*) et signifiant 'pourvu d'une marque'. *Pincta* est relevé en 1249, à l'emploi subs. au sens de «mesure pour les liquides» [...]. L'angl. *pint* «pinte» est relevé dep. 1384.

Beraz, *pinta* hitza, 'neurri' eta 'untzi' adiera duenean ere, hitz motibatua da eta latinezko *pingere* dauka etorburu. *Pinta* deitutako untziak badauka marka bat pintaturik untziak zenbat jasaten duen adierazten baitu marka horrek. Beraz *pinte* eta *pinter* hitzek lotura etimologikoa dute *pingere*-tik datorren *peindre* hitzarekin. Eta uste izateko da gaztelazko *pinta* hitzak lotura etimologikoa duela *pintar* formarekin, nahiz denboraren poderioz bien erranahiak, partez, elkarretarik urrundu diren.

Garazitik urrun ez dagoen Biarnon, horra S. Palayren hiztegiak gaskoierari buruz *pintà* aditzaz ekartzen duena: "Pinter, vider des pintes, boire beaucoup, avec excès, d'habitude; pintà-s, se saouler, s'enivrer". Untzia ere aipatzen du Palayk *pinte* sarrean: "pinte, broc, cafetière, ancienne mesure de capacité valant 9 décil., 24". Erranahi bereko aditz eratorriak ematen ditu: *pintassejà, pintounejà, pintourlejà*.

TLFek *pinter* aditzaz dio: 'Boire (des boissons alcoolisées) avec excès'. *Pinter* hitza dokumentua da 1269-78 urtean (Jean de Meun) eta 'boire beaucoup, avec excès' adierazten du. xvi. mendean ere agertzen da, mozkor baten mintzatuz erabilia baita.

Pingere aipatu dugu *pinte* eta *pinta* hitzen etimoi gisa, baina frantsesez ontsalaz *pingere*-k *peindre* eman du, eta *pintar* gaztelaz. Ikusi behar dugu ba ote duen zerbait egitekorik Etxepareren pasartearekin? Uste dut baietz, gazt. *pintar*, fr. *peindre* hitzek izan dituen adierak aztertzen balinbadira behintzat.

Ikus ditzagun frantsesez Erdi Aroan *pingere*-tik etorritako *peindre* lemak izan dituen erranahiak *Dictionnaire du Moyen Français* (DMF) obraren arabera. Adiera gehienak 'couvrir de peinture' dira, erran nahi baita 'pinturaz, tinduz estali'. Adibidez:

...semblables sont à la beauté des fiens couvers de noif, ou, comme dit Jhesu Crist, aux sepultures blanches et *paintes*, ou comme les pommes [que dit Josephus croistre en Sodome, qui par dedans sont] plaines de cendres et par dehors belles (GERS., *Concept.*, 1401, 416)

Molde bereko adibideak ez dira bekan. Bainan besterik bada ere ondoko adieraren berri ematen baitu DMFek: 'farder' 'maquiller', 'teindre', erran nahi baitu 'berregin, itxura hobetu' hala nola ondoko adibidean:

Ce chapeau [la couronne d'épines] vous fait grant encombre, Car il s'efondre Pour soy rescoudre —dans vostre chief tant précieux. C'est pour vous oindre Le chief et *paindre*— d'oighnement doux et gracieux. (*Pass. Auv.*, 1477, 254).

Bigarren adiera honek bide bat idekitzen digu: adiera horren arabera 'peindre' ez da zerbaiten ganean tindu ematea, ez eta ere zerbaiten edo norbaiten potret fidel ematea. 'Errealitatea kukutu', 'errealitatea aldatu' erran nahi du; segurki, 'ez egiazko', 'faltsu' konzeptua ez dauka urrun adiera honek.

Ber ildotik, *peinture* hitzaren adiera, Godefroy hiztegiaren arabera: ez da bakarrik tinduz egindako obra. Hauxe erran nahi du ere: 'discours trompeur, illusoire'. Adibidez Jeh. des Preisen adibidea dakar: "Guyon l'en at mentit, qui li fist la peinture"

(Jeh. des Preis, *Geste de Liege*, II, 9124, Scheler, *Gloss. philol.*) Beste adiera hurbila ematen du Godefroy-k: 'fausse apparence'. Beraz 'egia disimulatu' eta 'gezur' adieraziak ager ditekete 'peindre' eta 'peinture' hizen adiera zenbaitetan.

Urrunago doaz Hugueten hiztegiak ematen dituen beste adierak 'peindre' aditzaren inguruan. Huguetek 16. mendeko korpusa hartzen du aztergai, beraz Etxepareren garaikideak. Lehenik *achever de peindre* kolokazioak 'l'amener tout à fait à tel ou tel état' adierazten du. Bigarrenekorik, 'rendre complet son malheur, son embarras' adiera ematen du. Hirugarrenekorik 'etre au comble du malheur'. Hiru adierak elkarretarik hurbil daude. Lehen adierari doakion adibidea hauxe da: "De toutes de ces ruses elle usa en vers Dinias. Puis le sentant tourmenté et bien englué en son amour, elle acheva de peindre le miserable: et feignit, estre grosse de luy" (Bretin, tr. Lucien, Toxaris, 15). Bigarren adierari doakiona hauxe da, eta kontuan har Paben zegoen Nafarroako Erregek idatzia dela, eta beraz, hizkuntzaren aldetik, Etxepareren garaikide batena dela: "Pour achever de me peindre, il m'est arrivé un des plus extremes malheurs que je pouvois craindre, qui est la mort subite de monsieur le Prince" (1588 Henri IV, *Lett. Miss.*, t. II, p. 343, G., Compl.). Gaskoinako Aubigné-k ere adibidea ematen du: "[Montbrun] esprouva ce qu'il pouvait sur Valence qu'il faillit... Pour l'achever de peindre, Gordes mit en route ceux du Vivarez qui venoyent le trouver" (Aubigné, *Hist. Univ.*, VI, 13). Hirugarren adiera Belleau-k ematen du: "J'ai peur que ceste amour secrette Ne se brasse pour maistre Jean. —Pour moy? —Ouy, pour vous. —Han, han, je serois achevé de peindre" (Belleau, *Reconnue*, II, 4).

Etxepareren hizkuntzak eragina izan zezakeen frantsesetik edo gazteleratik jinik. Frantsesetiko eragina kontuan harturik, norbaitek erran lezake adiera horietarik bat ongi joan lekiokela Etxepareren testuari. Alabaina, Huguetek ematen duen adiera haren kalko baten bitartez; *niri untsa ezpadagit, behar dizit pintatu* esaldia horrelako perifrasiaren bitartez eman ditekete: 'Niri ongi egiten ez balin badit, nik sofrikario latza jasan behar dut'. Bide hori baztertzen dugu arrazoin baten bitartez: 'zoritxarrean egon' adiera hemen agertzekotan, 'achever de peindre' kolokazio osoa behar luke etorburu. Baina *pintatu* hitz hutsa baizik ez baitu ematen Etxeparek, ez da adiera sinegarria.

Orain arte frantsesa hartu dut kontuan. Gaztelerazko *pintar* eta *pinta* hitzek ere arretra hartze dute. Eta 'itxurakeria', 'faltsukeria', 'azalkeria' denotatzen dituzten adierak bilatu ditut *Diccionario de Autoridades* obran. *Pinta* lehenik 'seinale' edo 'tona' adierazten du, izan dadin naipetan egiten den markarekin, edo eta aurpegian egoten den arrastoarekin. Metaforikoki *pinta* da 'kanpotik zerbaitek gauza baten kalitateaz erakusten duen seinalea'. Sema bat ikusten dut horretan, erran nahi baita 'itxura, faltsua ala egiazkoa'. Sema hartatik 'engainatzeko gogoia izan' semara lerratzea bidezko da. Ikus ondoko adiera: 'pintar, empezar a mostrar la calidad buena o mala de alguna cosa'. Beste adiera bat ematen du hiztegiak: 'fingir, engrandecer, ponderar o exagerar alguna cosa'. Zentzu hurbileko adiera ere badu *pintar* hitzak: 'se toma algunas veces por imaginar a su arbitrio, o fingir en la imaginación a medida del deseo'. Egia erran, azken bi adiera hoietan etimoia lotzen du latinezko *fingerere* hitzarekin. Dena dela, *fingerere*-tik ala *pingere*-tik jinik, *pintar* hitzak 'gezurra sakatzeko ahala eman' adierazten duela edo adieraz dezakeela berezten dut.

Gaztelerazko *No quitar pinta* erran nahi baita 'egite handia izan' interesgarri da baina kolokazio honi doakion egitura ez da osoa Etxepareren testuan. Ez liteke hain

zentzugabekoa, beti ere kalkoaren bitartez, *pintatu behar dizit* horrela ulertzea: 'zuk bezala jokatu behar dut'; fr. 'je dois vous renvoyer la pareille'. Baina *quitar* hitzaren kidea falta da euskarazko testuan eta hipotesi hori baztertzeko dut.

Gaztelarazko *pintar* aditzak nola frantsesezko *peindre* aditzek 'faltsukeria egin' edo bederen 'errealitatea desgisatu' adiera badute. *Pintatu* hitza ez du itzultzen ez 'engañar' hitzaz gaztelaraz ez eta ere 'tromper' frantsesez bi aditz horiek izan lezaketen sexu-konotazioaren gatik. 'La engañaré' edo 'Je la tromperai' itzul baneza, gizonak besterekin harremanik nahi duela konpreni ditekete eta hain zuzen 'mehatxu' edo espantu hori olerkiaren azken lerroan aipatzen du testuak berak: *ukhenen dut orai ere berririk*. Baina nola *pintatu* hitzak ez duen hori zehazki adierazten, goiko erdarazko hitzak ez ditut hobesten.

Beste ñabardurarik gabe, Etxepareren testuaren ulertzeko proposatzen dudana glosa hauxe da: 'Niri ongi ez balin badit egiten, nik engainatu behar dut', edo 'nik alegia egin behar dut'. Gaztelarazko itzulpenerako proposatzen dut: 'tengo que fingir, que disimular'. Frantsesez aldiz: 'je dois la berner, l'abuser, ruser, je dois feindre, dissimuler'.

Ibilaldi bihurri honetan izan dukedan bidaideak erran beza ene proposamena onargarri zaionetz.

Bibliografia

- Altuna, P., 1979, *Etxepareren hiztegia. Lexicón Decheperiano*, Bilbo.
- , 1979, *Versificación de Dechepeare. Métrica y pronunciación*, Bilbo.
- , 1980, *Linguae Vasconum primitivae* (Edizio kritikoa), Bilbo.
- Arcocha-Scarcia A. & B. Oyharçabal, 2008, «Siglo xvii: desarrollo y edición de las letras vascas septentrionales». Interneten eskura: <<http://www.basqueliterature.com>>.
- & —, 2009, «xvi. mendea: euskal idatzien lehenengo emaitzak». Interneten eskura: <<http://www.basqueliterature.com>>.
- ATILF/Équipe "Moyen français et français préclassique", 2003-05, *Dictionnaire du Moyen Français (DMF). Base de Lexiques de Moyen Français (DMF1)*. Interneten eskura: <<http://www.atilf.fr/dmf/>>.
- Etchepare, B., 1545, *Linguae Vasconum primitivae*, Bordeaux, Mornay [Euskaltzaindiaren argitarapena, Bilbo, 1995].
- Godefroy, F., 1881-1902, *Dictionnaire de l'ancienne langue française (IXe-XVe siècle)*, Paris, F. Vieweg.
- Huguet, E., 1925-1967, *Dictionnaire de la langue française du XVIème siècle*, Paris, E. Champion.
- INALF-CNRS, 1797, *Trésor de la langue française*. Interneten eskura: <<http://atilf.atilf.fr/dendien/scripts/tlfiv4/showps.exe?p=combi.htm;java=no>>.
- Lafon, R., 1951, «La langue de Bernard Dechepeare», *BAP* VII, 309-338.
- , 1952, «Notes pour une édition critique et une traduction française des *Linguae Vasconum Primitivae* de Bernard Dechepeare», *BAP* VIII, 139-180 [orain in *Iker*-11, Euskaltzaindia, 1999, 759-794].
- Oyharçabal, B., 2008, «Ohar bat literatura historiografiaz: B. Echepeare Erdi-aroko autore?», *Iker*-21, Bilbo, Euskaltzaindia, 491-521.
- RAE, 1984, *Diccionario de autoridades*, Madril, Gredos.